

# NEKAZARITZA ETA GANADUEN BILLALDIYA DONOSTIYAN

*Gzpuzkoako Diputazio chit goituaren mendean*



1906

Urteeroko, nekazaritza eta ganaduen billaldiya egingo da, datorren Uztaillaren 6-an, 7-an eta 8-an, aurten, Donostian.

Etorri litezke billaldi ontan sartzera, Provintziyako nekazari guztiyak, ala nola, Euskal-erri guztitik, nekazari lanetan bear diran erreminta klase edo mota guziyen eta pentzu berriyen ekidatzalle edo fabrikanteak.

## LEGEAK

I. ko Nekazari lanetarako erreminta modu guztiyak, lur-frutu eta gañerakoak, ala ere, ganadu guziyak, agertu bearko dira, ontarako aurretik izendatzen dan, tokiyan, Uztaillaren 6-an, artzaldeko ordubiyetatik zazpiyak bitartean.

Juezake rabakiko dute, ala ganadu, nola gañerako gauzak billandiyan artu litezkean edo ez. Ontarako kontuan iduki bear da, billaldi au ezdala feriya bat, eta, onegatik, alferrik litzakeala toki ematia, billalldiyari erantzun ez lezateken ganadu eta gauzai.

2.garren Billaldiyan artua izaten dan lur-frutu, egazti edo ganadu bakoitzaren jabiari emango zayo papercho agirizko bat bere eskubiderako.

3.garren Juezak esango dute zer lekutan jarri biar diran ganaduak, ala nola gañeraku lur-frutu eta gauza guztiyak.

4.garren Billaldira datorren ganadu bakoitzaren jabiak agertu biarko du berekiñ zuela aurreko sei illabetietan ere, bizi dan erriko Alkate jaunaren paper ziertotu batekiñ.

5.garren Bei-ganadu, zaldi eta asto, dirala arrak edo emiakk, sariya irabazten dutenak billaldi onetan, biarko dituzte beren jabiak iruki probintzi onetan arrazak obetzeko bilialdiyen ondorengo amabi illabetietan, Ontarako:

1.ko Zezen eta beyen arrazako ganadu sarituari egingo zayote siñale bat, eta saldi eta astuak artuako dira kontuan Ballaldiko aldimaitzadun edo komisarioaren bitartez.

2.garren Esan dan ganadu mota oyeri, sariyak emango zaizte: erdiya bereala eta beste erdiya andik urte betera. Bañan nola nai dala zezen edo bei oyen jabeak agertu biarko du urrango billaldiyan, Pro. bintziyako erriren batean irau duela bere ganadu sarituak urte bete ortan, erri ortako Alkate jaunaren paper ziertotu baten bitartez. Ezkiñ balezake egiñ aurrean esaten dana biarko du agertu Probintziko nekazaritzako batxarrera, erakutziaz abere sendatzalle edo albeitero baten ageriy non aitortzen dan zer gertatu zaion ganaduari eta zergatik ez duten izan gordetzeko modurik. Ageri ori ikusita esango du batzarreak eman biar zaion edo ez saririk artzeko daukana.

6.garren Sariya irabazten duen bakoitzari entregatuko zayo, tokatzen zayon diruaz gañera, bitezar edo diploma bat, zeinean agertuko dan zer sari eta zergatik irabazi duen. Bitezar edo diploma oek izango dira Diputazioko Dianagusiak firmatuak.

7.garren Billaldira eramaten ditubenak ganadu mota edo klase Datetik buru bat baño geyago, irabazi lezazkike ainbat sari bañan dirutan ez lezake jazo sari aundiyyentzat eskeñiya dagon baño geyago. Beste-gañ-erakoen saritzat eramango du bitezarra edo diploma bakarrik.

Onla gertatu ta gelditzen dan dirubaz konta lezateke juezak beste sari batzuben emateko ala biar bada.

8.garren Sari abezaz gañera eman litezke aipamen onrragarriak, zeñengatik artuko duten bear dan bitezarra edo diploma eskatu eskero aldimaitzadun edo Komisariyo jaunari.

9.garren Lenagoko billaldiyetan saritutako ganaduak, etorri litez-teke urrengo billaldiyetin beste edozein bezela baña bakarrik lezateke jaso beren jabeak dirutan, lenago izan zuten baño geyagoko sariya irichi ezkeru. Baldin, lenago ateratako sariya bera gertatzen bazayo, ezdu izango bitezar edo diploma baño ezer geyago jasotzeko eskubiderik.

10.garren Erreminta edo majiak dituztenak, nai balituztekel ur-lanean edo beste berenean agertu, ongi erakusteko jendeai zer lan egiten duten, eskatu bearuko diye, Billaldiko aldimaitzadun edo Komisarioari, nork duan eskubidea baimendu edo ukatzeko. Nola nai dala, ezdu te juezak erabakiko, lan aueri dagokiyotenez.

Lan-proba auek ongi egiteko, zuzenduko du sartu-atera eta erabilli guziya, Komisario jaunak.

11.garren Juezak, izango dituzte beren inendean, sei medalla zillarezko, beste sei brontzezko ta gañera berreun pezta, emateko, majiña edo erraminta talderik onenai, ala nola, erremintak ongiena erabiltzen dituztenai.

12.garren Lur-frutuen billaldiyan sartzeko, ekarri bearuko dira bakoitzetik onea:

Soroko ale landareak: agertuko dira ogei litro alerekin, au da, aziya bakarrik, alde batera, baldin azitik datorrenak badira. Auetan, bakarrik artoa agertuko da aletu gabe, burutan, ekarririk berrogei ta amar buru.

Gañera ekarri bearuko da oitatiek, landaria bet-a, eskukara bat bezela (lau edo bost kiloren karga) eldutakoa eta beren sustar edo zañakiñ.

Ondua duten landareak: ogei ondo, ostrorik kendu gabeak. Pata baldin dada, amar kilo.

*Pruta preskuak:* Bearuko dira amar guchiyenez muestratzat.

*Pruta gordeak edo sikuak:* eramango dira bakoitzetik guchiyenez iru kilo.

*Babarrun eta lekako ale sikuak:* Bakoitzarentzat, bost litro ale, guchiyenez.

*Ardo eta sagarduak:* agertzen diran muestrak bear dituzte izan guchiyenez iru botilla.

*Ezti eta argisariya:* lau kilo guchiyenez izango da muestra bakoitza.

*Ezti-ura:* Bi litro edo bi botilla izango dira agertu bear diranak.

*Gaztak:* Bi gazta bakoitzetik.

Mantekilla edo guriyak: Agertuko dira bi kilo guchi gora bera klase bakoitzetik.

13.garren Gezurretan arrapatuko balitz ganadu jaberren bat, edo besten bat ez bakarrik galduko luke sariya, baizik urrengo billaldi batzuetara juatia debekatuba izango luke.

14.garren Billaldiyan sartutako ganadu eta egaztiyak, eziñ beren jabiak kendu edo ezkutatuko dituzte jendiak ikusteko orduetan, baldiñ eri jartzen ezpadira.

Diputazio chit goituak lendabizi erosten ezpaditu, salgai izango dira, beren jabiak ala nai badute, ganadu eta gañerako gauzak; baña, saldurik ere, beren jabe berriyak eziñ eramango dituzte billaldiya bukatu arterano.

15.garren Juezak egingo dute beren lana, larunbat goizean Uztailaren 7-an, goizeko zortziyetatik ordubata bitartean.

16.garren Sari-emate otsandikua izango da igandian, illen 8-an arratzaldeko iruterdietan.

Egun ortatik aurrera, iru illabete bitartian norbaitek zerbait galdeera egin bear balu, juan liteke Probintziko batzar edo Komisiora.

## SARIYAK

Urte baletik birako zezen eta zekorrak

|                             |   |          |          |       |     |
|-----------------------------|---|----------|----------|-------|-----|
| Bertako arraza garbiya..... | } | 1.ko     | Sariya.. | Ptak. | 250 |
|                             |   | 2.garren | »        | »     | 200 |
|                             |   | 3.garren | »        | »     | 150 |
|                             |   | Guziya   | .....    | Ptak. | 600 |
| <hr/>                       |   |          |          |       |     |
| Bi urtetik gorakoak.....    | } | 1.ko     | Sariya.. | Ptak. | 250 |
|                             |   | 2.garren | »        | »     | 200 |
|                             |   | 3 garren | »        | »     | 150 |
|                             |   | Guziya.  | .....    | Ptak. | 600 |
| <hr/>                       |   |          |          |       |     |

*Urte batitik birako bigara eta beyak*

|                             |   |             |           |       |     |
|-----------------------------|---|-------------|-----------|-------|-----|
| Bertako arraza garbiya..... | { | 1.ko        | Sariya... | Ptak. | 120 |
|                             |   | 2.garren    | »         | »     | 100 |
|                             |   | 3.garren    | »         | »     | 80  |
|                             |   | Guziya..... | Ptak.     | 300   |     |

|  |   |             |           |       |     |
|--|---|-------------|-----------|-------|-----|
| Bi urtetik irukoak, esnetan edo ernai asaltzen dirala..... | { | 1.ko        | Sariya... | Ptak. | 160 |
|  |   | 2.garren    | »         | »     | 130 |
|  |   | 3.garren    | »         | »     | 100 |
|  |   | Guziya..... | Ptak.     | 390   |     |

|   |   |             |           |       |     |
|---|---|-------------|-----------|-------|-----|
| Iru urtetik gorakoak, esnetan edo ernai asaltzen dirala.. ..... | { | 1.ko        | Sariya... | Ptak. | 200 |
|   |   | 2.garren    | »         | »     | 160 |
|   |   | 3.garren    | »         | »     | 120 |
|   |   | Guziya..... | Ptak.     | 480   |     |

*Urte batetik birako zezen eta zekorrak*

|                                     |   |             |            |       |     |
|-------------------------------------|---|-------------|------------|-------|-----|
| Suizo arraza jatorra (Schwitz)..... | { | 1.ko        | Sariya.... | Ptak. | 250 |
|                                     |   | 2.garren    | »          | »     | 200 |
|                                     |   | 3.garren    | »          | »     | 150 |
|                                     |   | Guziya..... | Ptak.      | 600   |     |

|                          |   |             |           |       |     |
|--------------------------|---|-------------|-----------|-------|-----|
| Bi urtetik gorakoak..... | { | 1.ko        | Sariya... | Ptak. | 250 |
|                          |   | 2.garren    | »         | »     | 200 |
|                          |   | 3.garren    | »         | »     | 150 |
|                          |   | Guziya..... | Ptak.     | 500   |     |

*Urte batetik birako bigara eta beyak*

|   |   |                      |     |
|---|---|----------------------|-----|
| Suizo arraza jatorra (Schwitz).....                                 | { | 1.ko Sariya... Ptak. | 120 |
|   |   | 2.garren » »         | 100 |
|   |   | 3.garren » »         | 80  |
|   |   | Guziya..... Ptak.    | 300 |
| <hr/>   |   |                      |     |
| Bi urtetik irkoak esnetan edo ernai<br>asaltzen dirala.. .....      | { | 1.ko Sariya.. Ptak.  | 160 |
|   |   | 2.garren » »         | 130 |
|   |   | 3.garren » »         | 100 |
|   |   | Guziya..... Ptak.    | 390 |
| <hr/>   |   |                      |     |
| Iru urtetik gorakoak esnetan edo er-<br>nai asaltzen dirala.. ..... | { | 1.ko Sariya... Ptak. | 200 |
|   |   | 2.garren » »         | 160 |
|   |   | 3.garren » »         | 120 |
|   |   | Guziya..... Ptak.    | 480 |
| <hr/>   |   |                      |     |

*Urte batetik birako zezen eta zekorrak*

|                              |   |                      |     |
|------------------------------|---|----------------------|-----|
| Kanpoko arraza jatorrak..... | { | 1.ko Sariya... Ptak. | 225 |
|                              |   | 2.garren » »         | 175 |
|                              |   | 3.garren » »         | 125 |
|                              |   | Guziya..... Ptak.    | 525 |
| <hr/>                        |   |                      |     |
| Bi urtetik gorakoak.....     | { | 1.ko Sariya.. Ptak.  | 225 |
|                              |   | 2 garren » »         | 175 |
|                              |   | 3.garren » »         | 125 |
|                              |   | Guziya.. ..... Ptak. | 225 |
| <hr/>                        |   |                      |     |

*Urte batetik bestera bigara eta beyak*

|                              |   |                      |            |
|------------------------------|---|----------------------|------------|
| Kanpoko arraza jatorrak..... | { | 1.ko Sariya... Ptak. | 120        |
|                              |   | 2.garren » »         | 100        |
|                              |   | 3.garren » »         | 80         |
|                              |   | Guziya. .... Ptak.   | <u>300</u> |

|   |   |                       |            |
|---|---|-----------------------|------------|
| Bi urtetik gorakoak esnetan edo er-<br>naisaltzen dirala..... | { | 1.ko Sariya.. . Ptak. | 160        |
|   |   | 2.garren » »          | 130        |
|   |   | 3.garren » »          | 100        |
|   |   | Guziya. .... Ptak.    | <u>390</u> |

|  |   |                      |            |
|--|---|----------------------|------------|
| Iru urtetik gorakoak esnetan edo er-<br>nai asaltzen dirala.. .. | { | 1.ko Sariya... Ptak. | 200        |
|  |   | 2.garren » »         | 160        |
|  |   | 3.garren » »         | 120        |
|  |   | Guziya.. .... Ptak.  | <u>480</u> |

*Urte batetik birako bigara eta beyak*

|                |   |                     |            |
|----------------|---|---------------------|------------|
| Mestizuak..... | { | 1.ko Sariya.. Ptak. | 120        |
|                |   | 2.garren » »        | 100        |
|                |   | 3.garren » »        | 80         |
|                |   | Guziya. .... Ptak.  | <u>300</u> |

|  |   |                       |            |
|--|---|-----------------------|------------|
| Bi urtetik irukoak esnetan edo er-<br>nai asaltzen dirala..... | { | 1.ko Sariya,. . Ptak. | 160        |
|  |   | 2.garren » »          | 130        |
|  |   | 3.garren » »          | 100        |
|  |   | Guziya. .... Ptak.    | <u>390</u> |

|  |   |             |            |       |     |
|--|---|-------------|------------|-------|-----|
| Iru urtetik gorakoak esnetan edo er-<br>nai asaltzen dirala..... | } | 1.ko        | Sariya.. . | Ptak. | 200 |
|  |   | 2.garren    | »          | »     | 160 |
|  |   | 3.garren    | »          | »     | 120 |
|  |   | Guziya..... | Ptak.      | 480   |     |

*Esnetan dauden esne-beyen sallak*

|  |   |                |            |       |     |
|--|---|----------------|------------|-------|-----|
| Bilialdi ontan artuko dira beste sa-<br>riyetara sartu ezdiran esne-beyen<br>sallak..... | } | 1.ko           | Sariya.. . | Ptak. | 200 |
|  |   | 2.garren       | »          | »     | 180 |
|  |   | 3.garren       | »          | »     | 160 |
|  |   | Guziya.. ..... | Ptak.      | 580   |     |

Bitezar onragarri bat bertako arraza garbiko sallik onenari, sall bakoitzean sartzan dirala guchinez iru urtetik gorako bi bei eta urte baretetik irurako bi ume. Animalia oyek aziak izan bear dute beren jabearen echean, zeñek onela argitaratuko duen, bizi dan eriko Alkate jaunaren paper ziertotu batekiñ.

Beste bitezar onrogarri bat, zezen suizo Schwitz eta bertako beyak emandako mestizu sallik onenari, lenagokuaren berdiña dala, ala ganadu buru nola beren denboretan.

Zaldi eta mochalak bertan jayuaq mendi abereak

|                              |   |          |          |       |     |
|------------------------------|---|----------|----------|-------|-----|
| 2 urtetik 5 bitartekuak..... | } | 1.ko     | Sariya.. | ptak. | 100 |
|                              |   | 2.garren | »        | »     | 75  |
|                              |   | 3.garren | »        | »     | 50  |
|                              |   | 4.garren | »        | »     | 25  |

*Beorrak*

|                               |   |          |            |       |     |
|-------------------------------|---|----------|------------|-------|-----|
| 12 urtetik 5 bitartekuak..... | } | 1.ko     | Sariya.... | Ptak. | 100 |
|                               |   | 2.garren | »          | »     | 75  |
|                               |   | 3.garren | »          | »     | 50  |
|                               |   | 4.garren | »          | »     | 25  |



*Estalpe edo ukulluko abereak zaldiyak*

|                         |   |                |       |     |
|-------------------------|---|----------------|-------|-----|
| 2 urtetik 5 bitartekuak | } | 1.ko Sariya... | Ptak. | 100 |
|                         |   | 2.garren »     | »     | 75  |
|                         |   | 3.garren »     | »     | 50  |

## Beorrak

|                           |   |                |       |     |
|---------------------------|---|----------------|-------|-----|
| 2 urtetik 5 bitartekuak.. | } | 1.ko Sariya... | Ptak. | 100 |
|                           |   | 2.garren »     | »     | 75  |
|                           |   | 3.garren »     | »     | 50  |

*Urte batetik bostera bitarteko astoak*

|               |   |               |       |    |
|---------------|---|---------------|-------|----|
| Astarrak..... | } | 1.ko Sariya.. | Ptak. | 90 |
|               |   | 2.garren »    | »     | 70 |
|               |   | 3.garren »    | »     | 50 |
|               |   | 4.garren »    | »     | 30 |

|                |   |                |       |    |
|----------------|---|----------------|-------|----|
| Astaameak..... | } | 1.ko Sariya... | Ptak. | 80 |
|                |   | 2.garren »     | »     | 60 |
|                |   | 3.garren »     | »     | 40 |
|                |   | 4.garren »     | »     | 20 |

*Zortzi illabatetik aurrerako zerriyak*

|              |   |                |       |     |
|--------------|---|----------------|-------|-----|
| apoteak..... | } | 1.ko Sariya... | Ptak. | 100 |
|              |   | 2.garren »     | »     | 80  |
|              |   | 3.garren »     | »     | 60  |
|              |   | 4.garren »     | »     | 40  |

|   |   |                |       |     |
|---|---|----------------|-------|-----|
| Zerriemeak umeakiñ edo umatze-koak..... | } | 1.ko Sariya... | Ptak. | 100 |
|   |   | 2.garren »     | »     | 80  |
|   |   | 3.garren »     | »     | 60  |
|   |   | 4.garren »     | »     | 40  |

*Urte batetik lau bitarteko ariyak*

|                             |   |                        |    |
|-----------------------------|---|------------------------|----|
| Bertako arraza garbiya..... | { | 1.ko Sariya.. .. Ptak. | 60 |
|                             |   | 2.garren » »           | 50 |
|                             |   | 3.garren » »           | 40 |

*Urte batetik bost bitarteko ariyak*

|                     |   |                       |    |
|---------------------|---|-----------------------|----|
| Kampoko arraza..... | { | 1.ko Sariya.. . Ptak. | 60 |
|                     |   | 2.garren » »          | 50 |
|                     |   | 3.garren » »          | 40 |

*Urte batetik lau bitarteko ardiyak*

|                             |   |                      |    |
|-----------------------------|---|----------------------|----|
| Bertako arraza garbiya..... | { | 1.ko Sariya... Ptak. | 50 |
|                             |   | 2.garren » »         | 40 |
|                             |   | 3.garren » »         | 30 |

*Urte batetik bost bitarteko ardiyak*

|                      |   |                       |    |
|----------------------|---|-----------------------|----|
| Kampoko arrazak..... | { | 1.ko Sariya.. . Ptak. | 50 |
|                      |   | 2.garren » »          | 40 |
|                      |   | 3.garren » »          | 30 |

Ari eta ardiyak ekarri bear dira amabost egunez aurretik geyenaz ere ille moztuak bakarrik uzten zayola bakoitzari mordoska bat muestratako bizkarraren atzean ezker aldetik. Bost ardi guchiyenez bearko dira, zall batean.

*Ollar eta ollua*

|  |   |                      |    |
|--|---|----------------------|----|
| Bertako arraza-guchienez ollar bat<br>eta bi ollo.. .. | { | 1.ko Sariya... Ptak. | 80 |
|  |   | 2.garren » »         | 50 |
|  |   | 3.garren » »         | 25 |

|  |   |                       |    |
|--|---|-----------------------|----|
| Kanpoko arrazak guchienoz ollar bat eta bi ollo..... | } | 1.ko Sariya.. . Ptak. | 80 |
|  |   | 2.garren » »          | 60 |
|  |   | 3.garren » »          | 40 |
|  |   | 4.garren » »          | 30 |
|  |   | 5.garren » »          | 25 |

*Antzarrak*

|                 |   |                       |    |
|-----------------|---|-----------------------|----|
| Arr-emeak ..... | } | 1.ko Sariya.. . Ptak. | 25 |
|                 |   | 2.garren » »          | 20 |
|                 |   | 3.garren » »          | 15 |
|                 |   | 4.garren » »          | 10 |

*Ateak*

|               |                       |    |
|---------------|-----------------------|----|
| Arremeak..... | 1.ko Sariya.. . Ptak. | 20 |
|               | 2.garren » »          | 15 |
|               | 3.garren » »          | 10 |
|               | 4.garren » »          | 5  |

*Usoak*

|               |                       |    |
|---------------|-----------------------|----|
| Arremeak..... | 1.ko Sariya.. . Ptak. | 15 |
|               | 2.garren » »          | 10 |
|               | 3.garren » »          | 6  |
|               | 4.garren » »          | 5  |

*Unchi edo konejuak*

|            |   |                       |    |
|------------|---|-----------------------|----|
| Parea..... | } | 1.ko Sariya.. . Ptak. | 20 |
|            |   | 2.garren » »          | 15 |
|            |   | 3.garren » »          | 10 |
|            |   | 4.garren » »          | 5  |

*Nekazaritzako erramientak*

|                 |       |             |          |
|-----------------|-------|-------------|----------|
| 1.ko Sariya.. . | ..... | Zillarrezko | medalla. |
| 2.garren »      | ..... | »           | »        |
| 3.garren »      | ..... | Bronzezko   | »        |
| 4.garren »      | ..... | »           | »        |

*Lur-lankayak*

|          |          |       |             |          |
|----------|----------|-------|-------------|----------|
| 1.ko     | Sariya.. | ..... | Zillarrezko | medalla. |
| 2.garren | »        | ..... | »           | »        |
| 3.garren | »        | ..... | Bronzezko   | »        |
| 4.garren | »        | ..... | »           | »        |

Juezak erabakiko dute erreminta eta lur-lankayak probatzea bear bezela nola erantzuten duten probintzi ontarako ongi datozenetan.

*Bertan egintako guri edo mantekillak*

|          |          |       |             |          |
|----------|----------|-------|-------------|----------|
| 1.ko     | Sariya.. | ..... | Zillarrezko | medalla. |
| 2.garren | »        | ..... | »           | »        |
| 3.garren | »        | ..... | Bronzezko   | »        |
| 4.garren | »        | ..... | »           | »        |

uuu

*Bertan egintako gaztak*

|                 |   |          |          |       |    |
|-----------------|---|----------|----------|-------|----|
| Ardi gazta..... | } | 1.ko     | Sariya.. | Ptak. | 30 |
|                 |   | 2.garren | »        | »     | 20 |
|                 |   | 3.garren | »        | »     | 10 |
| Bei-gazta.....  | } | 1.ko     | Sariya.. | Ptak. | 30 |
|                 |   | 2.garren | »        | »     | 20 |
|                 |   | 3.garren | »        | »     | 10 |

*Ezti eta argizariyak*

|          |           |       |  |    |
|----------|-----------|-------|--|----|
| 1.ko     | Sariya... | ..... |  | 30 |
| 2.garren | »         | ..... |  | 20 |
| 3.garren | »         | ..... |  | 15 |
| 4.garren | »         | ..... |  | 10 |

*Sagarduak*

|          |          |       |             |          |
|----------|----------|-------|-------------|----------|
| 1.ko     | Sariya.. | ..... | Zillarrezko | medalla. |
| 2.garren | »        | ..... | »           | »        |

|          |   |       |           |   |
|----------|---|-------|-----------|---|
| 3.garren | » | ..... | Bronzezko | » |
| 4.garren | » | ..... | »         | » |

*Bertako chakoliñak*

|          |          |       |             |          |
|----------|----------|-------|-------------|----------|
| 1.ko     | Sariya.. | ..... | Zillarrezko | medalla. |
| 2.garren | »        | ..... | Bronzezko   | »        |

Ale-landare, leliadun, belartzu edo ganadu-jateko denak, ondozko eta lur-azpiko prutak, ala, zer nai landare pabriketarako gai dunak, nola. pruta-arbol beren prutak, baratziko edozer eta beste, ganadu janariak, sartu litezke batzarrera eta onetarako izango dira.

*Lau medalla zillarrezko eta zortzi brontzeskoa*

Gañera saldu oi dituzten edo artan dauden azi-dendari eta landare edo prutu-saltzaileak sartzen dira bakarrik, eta onetarako izango dira zillarrezko Di medalla eta brontzezko lau, saritzeko, nola landare eta azi sall edo pillarik onenai ala lur pruturik geyenak eta ederrenak di-tuenai.

Batzarre onetarako artu diran neurriyak



1.ko Batzarre onetan erabaki bear duten juezak izango dira, denporaz aurretik siñalatuak Uztaillaren seyan, arratzaldeko ordubiyetan asi ditezen, beren presta-lanetan.

2.garren Juez auek izango dira diña, zabalduaz bear bezela, lana gerta dedin obetoago eto azkarrago.

Egingo du juezen buru, komisio probinzialeko Diputadu jaun batek artarako aurretik siñalatu.

3.garren Juezak, eskatu lezayeteke batzar-lagunari, deizkiyoten erantzuera guziyak, gelditurik auek ontara beartuak.

4.garren Juezen Komisio denak bilduko dira, aurretik izendatutako orduetan, erabakitzeko guztiyen sari-ematea.

5.garren Baldiñ, oraiñ esan dan Ian onetan, ez balira Juezak iritzi batekoak, erabakiko da iritzirik geyenak diran aldera.

6.garren Juezen azken erabakiyan kontra ezdu iñork izango ezereen eskubiderik.

7.garren Juezak lezateke, artarako arrazoirik balego lenago jarrita dauden sariyak muratu eta zernai gora-bera eman, ganadu klase edo gauza batentzat siñalatuak dauden sari ayen barrenen, gañerakoari ba-koitzean ikutu gabe, eta gañera, sari berriyak siñalatu litzateke paper onek esaten dituanaz kanpora, baldiñ artarako arrazoya egon eta izen-datuak daudenetik, guztiyak eman ezdiralako diriirik geldituko balitz.

8.garren Komisio probintzialak aukeratu du aurtengo billaldiko aldimaitzadun edo Komisario, Azkoitiyako on Trino Hurtado de Mendoza jauna zeñek antolatuko duen billaldiya eta aginduko duen nun eta nola jarri bear diran ganadu eta ganerako gauzak.

Izango da beaz jaun ori billaldiko buru eta berak aginduko du zer orduetan sartu litekean jendia.

Ez ganadurik eta ez ezer, billaldiyan sartutakorik atera liteke Konisio jaunaren baimenik babe.

9.garren Billaldiyan sartzeko, abere edo zer nai gauza bear ko da agertu paper ziertotu bat erriko Alkateana nun esango diran ondoren eskatzen ditugun guziyak:

Abere edo animaliren bat ekarri nai bada, esan bear ko du paper ark, nun bizi dan eta izena nola duan jabeak, zeñ sari-pean edo klasean sartu nai duan billaldi ontan, nundikako animaliya dan, zenbat denporan eduki duan bere mende, 'eta zer edade, arraza, ille eta pisu dituan.

Baldiñ badira erreminta edo lur-lankayak, nun bizi dan eta izeria nola duan jabeak eta egintza ayen echeak.

Lur-prutu eta landare guziyak sortzeko azaldu bear dira era berean paper artan, zer diran, nun egin diran, zenbat dakarren eta zenbat lur erabiltzen duan berayen jabeak eta gañera, juezari jakitea komeni litzazkokean gauza guziyak.

10.garren Ezda sartuko batzarre onetan, sudurretan, anillo edo burnirik ezduan isko edo zezenik.

11.garren Billaldi onetako zer-egiñ guziyak izango dira, oraiñ esango ditugun garai eta moduetan, eta bitartean, beste zerbaitengatik, aldatuko balira orduak, jakiñen gañian jarriko litzake aurretik jendia.

### **Ostiralean-Uztaillaren 6-an, 1906-garren**

*Ordubiyetatik zazpiyetara arratzzaldean.* Animali, erraminta eta lur-prutuen artzea billaldiyan.

### **Larunbatean-Uztaillaren 7-an, 1906-garrenean**

*Goizeko zazpiyetan.* irikiko da billaldiya agertuaz, bertan sartutako animali, erreminta, eta lur-prutu guziyak.

*Zazpiyetatik ordubata arte.* Juezak, taldetan zabaldurik, egingo dituzte beren lanak.

### **Igandean-Uztaillaren 8-an, 1906-garrenean**

Sarituak izan diran, animali, lur-prutu, eta gauza guziyen ikustea.

*Arratzaldeko iruretan.* Gipuzkoako Diputazio chit goituaren eta Donostiyako Ayuntamiento chit prestuaren etorrera billaldira. gero bereala sariyak emateko irabazi dituztenai.

*Gipuzkoako, nekazaritzaren batzarrean ontzat emana, ill-beltzen amabiyen, milla bederatzireun ta sei-garren urtean.* (1)



---

(1) Billaldi onetara, ganaduren bat edo geyagorekiñ etorri nai dutenak jakiñen gañean jartzen dira, ezdutela inun ukullurik billatu bearrik zergatik billaldi-tokiyan bertan izango diran eta gañera belar-ondua edo ganadu-jatekoa ere egongo dala modu onean.